

Laguntzailea



Neurrira

Hezkuntza eta
Gizarte Ekintza

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA



Aniztasunean oinarritutako museo-eredu bat sortu eta publikoen askotariko izaera eta beharrei erantzuteko, Cristobal Balenciaga Museoa oztopo fisiko, mental, sozial eta kulturalak ezabatuko dituzten eta herritar guztien partaidetza eta gizarteratze ekitatiboa bermatuko duten hezkuntza- eta gizarte-jarduerak ari da jorratzen.


Neurrira programaren bidez, zubiak eraiki nahi dira dinamika espezifikokoak behar izateagatik museora sartzeko zailtasunak dituzten gizarte-, komunitate- eta osasun-taldeen kulturarako eskubide unibertsala bermatzeko. Proposatutako formulek (bisita eta bisita gehi tailerra) esperientzia pertsonala barne hartzen dute, eta pertsona bakoitzaren trebetasun eta gaitasunak sustatzen dituzte.

Helburuak

Museoa eta haren edukia ahalik eta kolektibo gehienentzat irisgarria izatea eta, horretarako, dinamika espezifikokoak eta baliabide jakinak identifikatu, diseinatu eta ezartzea, museoko erakusketa eta hezkuntza-jardueretan irisgarritasun unibertsala sustatzeko.


Harreman eta lotura iraunkor eta egonkorak sortzea erakunde, elkarte eta talde profesionalekin, haien ezaugarri eta premiak ezagutzeko eta, hala, erantzun egokia eta zehatza emateko, ekintza integratzaileak finkatuz eta bakoitzarentzako esperientzia espezifikokoak sortuz.

Kultura-ondarea eta, zehazki, moda eta Cristóbal Balenciagaren sorkuntzak erabiltzea inklusioa, jasangarritasuna eta genero-berdintasuna bultzatzeko tresna gisa.



Eraikerako sarbidea eta museoko zirkulazioa

Museoaren eraikerako sarrera irisgarria da, eta barruko gune guztietako zirkulazioak ez du oztopo arkitektonikorik. Jendearentzat zabalik dauden eremuetan gurpil-aulkiekin ibili daiteke, ibilbideko puntu batean izan ezik, zeinetan bisitaren noranzkoa aldatu behar den, baina behar bezala seinaleztatuta dago planoan.



Igogailuak

Museoak hiru igogailu-dorre ditu, bi eraikin nagusian eta bat Aldamar Jauregian. Guztiek 0., 1. eta 2. solairuak komunikatzen dituzte, eta gurpil-aulki bakar bat igo daiteke, lehentasunez, igogailu bakoitzean.



Gurpil-aulkien eta aulki-bastoiaren mailegua

Museoak gurpil-aulkien kopuru mugatu bat du eta harreran eska daitezke maileguan hartzeko; era berean, sarrerako hallean zein erakusketa-ibilbidean aulki-bastoiak daude erabilgarri.



Komun egokituak

Museoaren eraikin nagusian komun egokituak daude. Horietan, laguntza tekniko egokiak daude: heldulekuak, altuera egokiko komuna eta konketa, baita alarma ere.

P**Aparkalekua**

Museoaren inguruan, mugikortasun murriztua izanik egiaztapen txartela duten pertsonentzat gordetako plaza-kopuru mugatu bat dago. Aurretiko eskabidea egitea beharrezkoa da, 24 ordu lehenago gutxienez, bisitariaren arretarako atariaren bidez.

T +34 943 008 840

@ info@crislobalbalenciagamuseoa.com

**Ibilgailu egokituen sarbidea**

Ibilgailu egokitueta datozen taldeak Aldamar Parkeko zabaldegira sar daitezke, han baitago museoaren sarrera nagusia. Erabiltzaileak utzi eta jasotzeko soilik, aurretiko eskabidea eginda gutxienez 24 ordu lehenago, bisitariaren arretarako atariaren bidez

T +34 943 008 840

@ info@crislobalbalenciagamuseoa.com

**Laguntza-txakurrak**

Laguntza-txakurrak onartuko dira, dagokion egiaztapen ofiziala aurkeztu ondoren.

A⁺**Ikusmen urritasuna**

Museoak tipografia handitua duten erakusketa-testuak kontsultatzeko liburuxkak ditu.

**Azpitulua dituzten ikus-entzunezkoak eta paperezko testuen narrazioa**

Ikus-entzunezkoek azpitulua eta/edo areto-orriak dituzte, testu transkribatuekin, ahots bidezko edukia irigarria dela bermatzeko.





Murgil zaitez!

Bisita museora eta bainu egokitua hondartzan

Museoak, Gurutze Gorriarekin lankidetzan, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako plan bat proposatzen du. Esperientziak barne hartzen ditu museora bisitaldia eta lagundutako bainua, Getariako Malkorbe hondartza lasai eta politean.



Dibertsitate fisiko eta motorra duten pertsonentzako sarbide eta ibilbide irisgarria bermatzen da —arrapalak, igogailuak eta zabalera egokiak—, eta horiek behar bezalako informazioa eta seinaleak dituzte.

- Ekainaren 15etik irailaren 15era
-  Gehienez ere 16 pertsona talde bakoitzeko
-  3 ordu 30 min
-  +34 943 008 840
-  info@crislobalbalenciagamuseoa.com



Balenciaga eskura Bisitaldia eta ukimen bidezko hurbilketa

Ibilbide deskriptibo gidatu hau osatzeko, ukipenezko hurbilketa bat egiten da bildumako obren kopia-multzo batean, ezaugarri formalak, materialak eta erabilitako teknikak ulertzen laguntzeko eta, azken batean, gozamen estetikoa sustatzeko.



Hala nork bere kabuz egindako bisitetan nola museoko hezitzaile batekin egindakoetan, ildo horretatik doazen jardueren helburua da itsuen edo ikusmen murriztuko pertsonen premiei erantzutea, erakusketaren edukira errazago iris daitezen eta edukia eraginkortasunez transmititzeko.



Gehienez ere 16 pertsona talde bakoitzeko



1 ordu 15 min



+34 943 008 840



info@crislobalbalenciagamuseoa.com




Zeinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua

Museoko bisitak eta jarduerak zeinu-hizkuntzako interprete baten laguntzaz egin daitezke. Zeinu-hizkuntza erabiltzen duten aurrez antolatutako talde eta banakoentzat dira, Hezkuntza Sailak antolatutako edozein jardueratan parte hartzen dutenean —eskola-ekimenak, familiakoak edo publiko orokorra—.



Gorrek edo entzumen-galera duten pertsonak museoaren programazioan parte hartu ahal izatea bermatu nahi da.

-
- Izena ematean eta jarduera egin baino gutxienez 15 egun lehenago eskatu behar da zerbitzua, bisitarien arretarako atariaren bidez.

 +34 943 008 840

 info@crislobalenciagamuseoa.com

Hands On

Ehungintzako eta dantzako tekniken tailerrak

Hurbilketa esperimental honi esker, museoak eta bertako edukiak parte-hartzaileen trebetasunak eta gaitasunak sustatzeko tresna eraginkor gisa duten potentziala azpimarratzen da.



Dibertsitate psikikoa eta adimen-dibertsitatea duten pertsonentzako eta haiekin lan egiten duten profesionalentzako ekintzen xedea da tresna erabilgarri bihurtzea ikaskuntza bultzatzeko eta, era berean, ongizatea sustatzeko.



Gehienez ere 10 pertsona talde bakoitzeko



1 ordu 30 min eta 2 ordu 30 min artean
Aukeratutako jardueraren/tailerraren arabera




+34 943 008 840



info@crislobalbalenciagamuseoa.com



Neurrira	<p><i>Neurrira</i> dibertsitatera egokitutako programa malgu bat da eta, beraz, moldatu eta talde eskatzaile bakoitzaren premia zehatzetara egokitu daiteke. Museoak gonbita egiten die deskribatutako ekimenetan parte hartzeko asmoa duten erakunde eta elkarteetako talde profesionali eta beren errealitatera egokitzeko informazioa jaso nahi duten guztiei museoeko taldearekin harremanetan jartzeko, eta eskaintzen dituen hezkuntza-aukera guztiak elkarlanean aztertzeko.</p>
Erreserbak	<p>Plaza mugatuak. Aldez aurretik erreserbatu behar da.</p> <p>T +34 943 008 840 @ info@crislobalenciagamuseoa.com</p> <p>Museoak eskabidea jaso dela konfirmatzeko email bat bidaliko du. Zerbitzua talde eskatzailearen premietara egokitzeko eta esperientzia haren arabera pertsonalizatzeko, bisitaldi bakoitzaren aurretik komunikazio edo prestakuntza-saio bat egingo da museoaren eta taldearekin lan egin ohi duten eta bisitaldian hartaz arduratuko diren profesionalen artean.</p>
Taldeak	<p>Taldeak gehienez ere 16 lagunekoak izango dira bisitaldietan, eta 10 pertsonakoak jarduera eta tailerretan. Erreserbatzeko, datu hauek eman beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">— Bisitaren eguna— Bisitari-kopurua, haien profila eta erabiltzaileen eta laguntzaileen kopurua zehaztuta— Azalpenak zein hizkuntzatan jaso nahi diren (euskara edo gaztelania)— Harremanetarako telefono bat— Helbide elektronikoa bat— Kontuan izan beharreko oharrak
Prezioak	<p>Bisita: 2,5 €, pertsonako Tailerra: 3 €, pertsonako</p>
Laguntzailea	<p> <u>Fundación "la Caixa"</u></p>

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

